



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2021/06/22an EGINDAKO EZ OHIKO  
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
22/06/2021.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramosluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko ekainaren 22an, arratsaldeko 17:30, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Ezohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 22 de junio de 2021, en el Telemático quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABNFNT.vVKm>

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno Extraordinaria  
2021/06/22



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **1.- ESKOLA AGENDA 20-30: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK.**

Alkateak hasiera eman dio bilkurari, eta zorionak eta eskerrak eman dizkie ikasturte honetan "hiri eta komunitate jasangarriak" 20-30 ESKOLA-AGENDA proiektuan parte hartu duten ikastetxeetako ikasleei, egindako ahalegin eta lan guztiagatik.

Saioa modu telematikoan egiten denez, ikastetxeetako ordezkariak zuzenean parte hartu beharrean, beren hitzaldien bideo bat emango dela jakinarazi du; halaber, planteatutako zenbait gaiari berak erantzungo dien arren, proposamenak informazio-batzorde batean aztertu eta eztabaidatuko direla, eta ikasturtearen hasieran jakinaraziko zaizkiela Udalak horiei buruz hartutako erabakiak.

Jarraian, bideo bat ematen da. Horren bidez egiten dituzten proposamenak akta honen eranskinean daude jasota.

Bideoa amaituta, honako hauek hitz egin dute:

- Alkateak, berriz ere errepikatu du egiten diren proposamenei buruzko erantzun bat bidaliko dela datorren ikasturtearen hasieran, eta honako ohar hauek egin ditu:

Bigarren mailako ikasleen proposamenei buruz: *“Halaxe, gure parke eta plazak sarritan zikin ikusten ditugu. Garbitasun zerbitzuko pertsonak buru belarri ari dira egunero gure kaleak eta parkeak txukuntzen, baina oso zaila izaten da gauzak garbi mantentzea, guk geuk ez bagara ahalegintzen gauzak ondo egiten eta zakarrontziak erabiltzen. Gainera, gogoratu zakarrontzi selektiboak dauzkagula gure planetako etorkizuna bermatzeko. Herri bat ez da garbiago sarri garbitzeagatik bertako biztanleek ez zikitzeagatik egiten duten ahaleginagatik baizik. Luis Ezeizan laster hobekuntzak izango ditugu. Patio eremua esate baterako, uda honetan konponduko dugu eta baita inguruan jolas berriak margotu eta ipini. Jolasteko mahaiak etab. era egokian egotea ahalegindu egiten gara, baina guztion artean zaindu beharreko gauzak dira. Inoiz ikusten badugu baten batek txarto erabiltzen ari direla, esan beharko genioke”*

Laugarren mailako ikasleen proposamenei buruz: *“Hasi gara hainbat gunetan txirringula aparkatzeko gunean egokitzen, Olazar kalean edo Osasun Zentro ondoan, esate baterako. Baita ere Hidalgo kalean oinezkoek lehentasunak daukaten gune bat ezarri, hor ere txirringula aparkatzeko gunea dago. Patineteak aparkatzeko hainbat guneak daude herrian zehar ta martxan daukagu herri osoan zehar horrelako gune gehiago jartzeko plangintza bat. Gaztañadui kalean ere zebra-bide berri bat aurreikusita dago. Ez dugu ahaztu behar, bai patinetea nahiz bizikleta erabiltzen badugu, inguruan ditugun oinezkoak. Abiadura zaindu beharra dago.”*

Seigarren mailako ikasleen proposamenei buruz: *Gaia konplexua izanik udala eta Caritas edo Gurutze Gorria moduko elkarteek elkarlanean aritzen gara urtero. Urteak ba dira, behar gehien daukatenei laguntza ematen zaiela. Eta laguntza hauek asko handitu dira pandemia garaian. Udalak urtero beharren arabera diru-laguntzak egokitzea saiatzen da. Baita ere urte guztietan lan barik edo arazoak daukaten pertsonak kontratatu egiten ditu, lan desberdinak egiteko. Hala ere, beharra daukaten pertsonentzako laguntzak indartzea beto ona izaten da.*

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno Extraordinaria

2021/06/22



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Hitza emanda, gainerako talde politikoetako bozeramaileek honako hauek esan dituzte:

- Eluska Irauzu: guk ere eskerrak eman nahi dizkizuegu, lan handia egin duzuelako, bai eta koordinazio-ahalegin handia egin duzuelako ere ikasle eta irakasleek, ikasturte hau ere ez delako batere erraza izan; eta azterketa ona, polita eta sakona egin duzuelako eta horrelako lanak egiten jarraitzea animatu nahi zaituztegu. Kritikoak izatea haurtzarotik landu beharreko ikasgaia da, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen proposamen eta ideiangatik.
- Leire San Vicente: nik ere eskerrak eman nahi nituzke, eta uste dut lan honen atzean ahalegin handia dagoela. Ikasle eta irakasle izateaz gain, "herriko seme-alabak" ere badira, bizilagunak. Hemen argi ikusten da haurrak gauza handia direla, eta haien iritziak kontuan hartzen baditugu ziur udalerrri seguruagoa, inklusiboagoa, paritarioagoa eta jasangarriagoa lortuko dugula. Haien ikuspuntuek ekarpen handia egin diezagukete, zeren eta, batzuetan, zaharragoek ez baititugu gauza jakin batzuk ikusten, eta hemen ikusten baita haiek eta beren proposamenek duten sakontasun-maila. Uste dut etorkizunean praktika horrekin jarraitu beharko genukeela, aukera horiek emateari utzi gabe, haurrak izan arren .

Bilkura amaitzeko, alkateak hitz egin du, eta berriz ere esan du proposamenak Hirigintza eta Ingurumen Batzordean landuko direla, programaren ardura duen udal-teknikaria ingurumen-arlokoa delako, eta batzordeak hartzen dituen erabakiak ikastetxei helaraziko zaizkiela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura egun honetako 17:55ean. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## Idazkaritza-Kontuhartzailletza

### **1.- AGENDA ESCOLAR 20-30: CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES.**

El Alcalde da inicio a la sesión y felicita y agradece, por todo el esfuerzo y trabajo hecho, a los alumnos/as de los centros escolares que han participado durante este curso escolar en el proyecto AGENDA ESCOLAR 20-30 “Ciudades y comunidades sostenibles”.

Informa que, dado que la sesión se celebra de forma telemática, en lugar de participar directamente los representantes de los centros se emitirá un video con sus intervenciones; así como que, si bien él responderá a algunas de las cuestiones que plantean, sus propuestas serán analizadas y debatidas en una comisión informativa y durante el inicio del curso ya se les notificará los acuerdos que ha adoptado el Ayuntamiento ante las mismas.

A continuación se emite un vídeo. Las propuestas que hacen a través del mismo constan en el Anexo al presente acta.

Terminado el video, se producen las siguientes intervenciones:

- El Alcalde, tras volver a reiterar que ya se enviará a inicios del curso que viene una respuesta ante las propuestas que se hacen, hace las siguientes consideraciones:

Ante las propuestas de los alumnos de segundo: *“Halaxe, gure parke eta plazak sarritan zikin ikusten ditugu. Garbitasun zerbitzuko pertsonak buru belarri ari dira egunero gure kaleak eta parkeak txukuntzen, baina oso zaila izaten da gauzak garbi mantentzea, guk geuk ez bagara ahalegintzen gauzak ondo egiten eta zakarrontziak erabiltzen. Gainera, gogoratu zakarrontzi selektiboak dauzkagula gure planetako etorkizuna bermatzeko. Herri bat ez da garbiago sarri garbitzeagatik bertako biztanleek ez zikintzeagatik egiten duten ahaleginagatik baizik. Luis Ezeizan laster hobekuntzak izango ditugu. Patio eremua esate baterako, uda honetan konponduko dugu eta baita inguruan jolas berriak margotu eta ipini. Jolasteko mahaiak etab. era egokian egotea ahalegindu egiten gara, baina guztion artean zaindu beharreko gauzak dira. Inoiz ikusten badugu baten batek txarto erabiltzen ari direla, esan beharko genioke”*

Ante las propuestas de los alumnos de cuarto: *“Hasi gara hainbat gunetan txirridula aparkatzeko gunean egokitzen, Olazar kalean edo Osasun Zentro ondoan, esate baterako. Baita ere Hidalgo kalean oinezkoek lehentasunak daukaten gune bat ezarri, hor ere txirridula aparkatzeko gunea dago. Patineteak aparkatzeko hainbat guneak daude herrian zehar ta martxan daukagu herri osoan zehar horrelako gune gehiago jartzeko plangintza bat. Gastainadui kalean ere zebra-bide berri bat aurreikusita dago. Ez dugu ahaztu behar, bai patinetea nahiz bizikleta erabiltzen badugu, inguruan ditugun oinezkoak. Abiadura zaindu beharra dago.”*

Ante las propuestas de los alumnos de sexto: *Gaia konplexua izanik udala eta Caritas edo Gurutze Gorria moduko elkarteek elkarlanean aritzen gara urtero. Urteak ba dira, behar gehien daukatenei laguntza ematen zaiela. Eta laguntza hauek asko handitu dira pandemia garaian. Udalak urtero beharren arabera diru-laguntzak egokitzea saiatzen da. Baita ere urte guztietan lan barik edo arazoak daukaten pertsonak kontratatu egiten ditu, lan desberdinak egiteko. Hala ere, beharra daukaten pertsonentzako laguntzak indartzea beto ona izaten da.*



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

Concedida la palabra, los portavoces del resto de los grupos políticos hacen las siguientes intervenciones:

- Eluska Irauzu: Nosotros, por nuestra parte, también queremos agradecer, porque habéis hecho un gran trabajo, y también un gran esfuerzo coordinándoos alumnos y profesores porque este curso tampoco ha sido nada fácil; y porque habéis hecho un análisis bueno, bonito y profundo y queremos animaros a que sigáis haciendo trabajos como ese. El ser críticos es una asignatura que hay que trabajarla desde la infancia y agradecerlos por vuestras propuestas e ideas.
- Leire San Vicente: Yo también quisiera agradecer, creo que hay mucho esfuerzo detrás de este trabajo. Además de ser alumnos y profesores también son “hijos/as del pueblo”, son vecino/as. Aquí se ve claramente que los niños/as son algo grande, y que si tenemos en cuentas sus opiniones seguro que lograremos un municipio más seguro, inclusivo, paritario y sostenible. Sus puntos de vista seguro que nos pueden aportar mucho porque a veces los mayores no vemos determinadas cosas y aquí se ve el nivel de profundidad que tienen tanto ellos como sus propuestas. Creo que en el futuro deberíamos de seguir con esta práctica y no dejar de darles estas oportunidades a pesar de que sean niños/as.

La sesión termina con la intervención del Alcalde, en la que vuelve a incidir en que las propuestas serán tratadas en la Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente por cuanto que la técnica municipal responsable del programa pertenece al área de medio ambiente, y que ya se hará llegar a los centros los acuerdos que se adopten por la Comisión.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:55 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

## ANEXO

Agenda 2030 Nazio Batuen Erakundeak inor atzean ez uzteko garatutako agenda da. Hori lortzeko, hau da, pertsonen arteko berdintasuna eta planeta babesteko, Garapen Iraunkorreko Helburuak definitu zituen.

Hortaz, helburu ekologikoak (plastikoa, zaborra, erreka garbiketa, mugikortasun astea, zuhaitz landaketak, ...) lantzen jarraituko ditugu, baina arlo soziala ere kontutan hartuko dugu.

Garapen Jasangarriko 17 + 1 helburuetatik, aurrean 11.a landu dugu:



### 11.HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

**HELBURU** honekin: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak, aldaketei aurre egiteko prestatuak, eta jasangarriak izatea lortu nahi da.

Hau azaldu eta gero, horra hor zikloka aztertu duguna, ateratako ondorioak eta hartutako konpromisoak:



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

### **2. MAILA**

**Kaixo arratsalde on, 2. Mailako ikasleak gara eta Eskola Agenda 2030ean aurten aztertu duguna Herriko Parkeak izan dira, guretzako jolastea oso garrantzitsua delako. Hobetzeko gauzak badaudela ikusi dugu azterketa honetan. Konturatu gara baita, parkeetan egoera txarrean dauden gauza batzuk guk apurtu ditugula.**

**Jarraian gure azterketaren ONDORIOAK eta konpromisoak**

#### **ONDO DAGOENA:**

- Toki gehienetan badaude iturriak, led motako farolak eta eserlekuak.
- Herrian nahiko plaza eta parke daudela ikusi dugu.

#### **HOBETZEKO DAGOENA:**

- Garbitasuna. Ikusi ditugun espazioetan garbitasuna zaindu beharra dago. Zakar ugari edota lekuak zaindu gabe daudela ikusi dugu.
- Iturriak falta dira: Liburutegiko parkean eta Depositu zaharrekoan. Hemen zakarrontziak ere falta dira.
- Parkeetan lurrean jolasak margotu.
- Liburutegiko Parkean eta Luis Ezeizako patioan etxetxo bat jarri, lehen zegoena baino handiagoa.
- Tximeleta gelako umeak joan ahal izateko zoruak konpondu (Luis Ezeizako patioan) eta txintxaunak egokitu.
- Ziurtatu parke eta plaza guztietan iturriak, zakarrontziak, farola egokiak, bankuak eta bizikleta zein patinetean aparkatzeko tokiak daudela.
- Jolastokietako txintxaunak, pinpona, mahaiak, bankuak... noiz behinka konpondu, txukundu, margotu.
- Skate park.-a konpondu eta beste toki baten jarri daiteke. Dagoen espazioa oso zaratatsua da, kamioiak zein kotxea ibiltzen dira. Espazio arriskutsua.
- Komunak falta dira.
- Urarekin zein harearekin jolasteko espaziorik ez dago.
- Ohe elastikoen moduko jolasak egotea.
- Berdegune gehiago behar ditugu herrian.
- Errekara jaisteko lekua egotea, ibaian jolasteko. Sta Marinan izan daiteke.

#### **GURE KONPROMISOAK:**

- Parkeetan dagoena zaintzea
- Zakarrontziak erabiltzea.

### **4. MAILA**

### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

**Kaixo 4. Mailako ikasleak gara eta guk gure herrian mugitzeko erarik egokiena zein den aztertu dugu. Herriko bi muturretatik zerbitzuetara dauden distantziak neurtu ditugu eta hauetatik mugitzeko dauden baldintzak. Ateratako ONDORIOAK ondorengoak izan dira:**

- Herriko puntu batetatik bestera joateko distantziak ez dira handiak, Neurtu dugun distantziarik luzeena km 1 eta 1,5 Kmkoa izan da, hau da, oinez 11 eta 16 minutu artekoa eta **beraz egokia da herrian oinez edo patinetez mugitzea**. Baina, **oinetz ibiltzeko**, espaloiak estuegiak dira Aranburuzabala kalean, **eta patinetez mugitu nahi badugu** ez dakigu nondik ibili, dauden espaloietan ezinezkoa baita oinezkoak eta patineteak batera ibiltzea.
- **Bizikletaz mugitzea ere eroso**a izango litzateke toki batetik bestera azkarrago joateko. Baina konturatu gara, **bizikletaz herri barruan ibiltzeko** bidegorririk ez daukagula eta leku askotan hauek aparkatzeko tokirik ere ez.
- Eskoriatzan, ez dago kotxerik gabeko eremurik, Jose Arana kalea 17:00etatik aurrera izan ezik.
- Herri guztian abiadura muga 30 Km/h (edo baxuagoa) da baina askotan ez da errespetatzen.

### **PROPOSAMENA**

Herrian **mugikortasuna hobetzeko udaletxeak** gauza batzuk hobetu beharko lituzke: **bidegorri sarea herri barrutik gehitu, zebra-bide gehiago ipini, espaloiak konpondu edota zabaldu...**

### **GURE KONPROMISOAK:**

- Patinetez ibiltzeko arautegi garbi bat badago, guk errespetatu egingo dugu.
- Bidegorririk ez badago ez gara bizikletekin espaloitik ibiliko.

## **6. MAILA**

**Kaixo 6. Mailakoak gara eta aztertu duguna Zer Jan? Nola Bizi izan da, elikadura, pobrezia eta osasunaren artean dagoen erlazioa ulertzeko asmoz. Honetarako, Eskoriatzako herrian dauzkagun supermerkatu eta denda txikietako produktuen prezioak konparatu ditugu. Bestalde, beharrak dituzten familiei udaletik ematen zaizkien laguntzen inguruan ere galdetu dugu.**

**Atera ditugun ONDORIOEN artean nabarmenenak aipatuko dizkizuegu:**

- Supermerkatuetan aurkitzen ditugun produktuak, normalean denda txikietan aurkitzen ditugunak baino merkeagoak dira. Hala ere, kontziente gara denda txikietan produktu espezializatuagoak daukatela eta horregatik direla garestiagoak.
- Harremana ikusten dugu pobrezia eta osasunerako egokiak ez diren elikagaien artean. Askotan gehien asetzen gaituzten elikagaiak merkeak eta koipetsuak izaten dira, eta beraz, pobrezia bizi dutenek elikadura orekatu bat aurrera eramateko zailtasunak dituzte.



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

- Zailtasunak dituzten pertsona hauentzat ongi deritzogu diru laguntzak egotea, gutxieneko batzuk edukiz bizi duin bat eramateko eskubidea bermatu behar diogulako gizarteko kide orori.

#### **PROPOSAMENAK**

- 1.- Elikagai eta sendagai kanpainak bideratzea edota jangela bat jartzea herrian beharra dutenei emateko.
- 2.- Herriko komertzioei kadukatzear dauden produktuak eskatu beharra dutenei emateko
- 3.- Lan gabe eta diru iturri gabe dauden pertsonen diru laguntza ematerakoan, 3 urteko errolda edukitzea eskatu gabe, asko jota urtebetekoa izatea.
- 4.- Nahi duten pertsonentzako udalak lur sailak eskaintzea baratzak egin eta bertako produktuak kontsumitu edo saltzeko.
- 5.- Udalak beharra duten pertsonen lan eskaintzak egitea herriko hobekuntzak egiteko.  
Adibidez: Margoketak, konponketak, garbiketak,...
- 6.- Herriko denda txikietan erosi ahal izateko udalak bonoak eta laguntzak eskaintzea elikagai fresko eta osasuntsuak gehiago erosi ahal izateko.
- 7.- Etxean erabiltzen ez diren gauzekin merkaturatu egitea eta ateratzen den dirua beharra dutenei ematea.

#### **BUKAERA**

**Hemen aurkeztu dizuegu guk egindako lana. Badakigu era berezian izan dela aurreko ere, baina jakin dugu egoerari aurre egiten eta gure lanarekin jarraitzen.**

**Eskerrik asko eta ia guk proposatutakoa kontutan hartzen duzuen.**